MUNGIA UDALA

# MUNGIARRA

www.mungia.eus

## Gure dirua

Aurrekontu Partehartzaileak, herritarrok Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan inbertituko dan aukeratu dogu.

## Herritarren parte-hartzea

EUSKARALDIA, Mungiako herritarrak 11 egunean euskeraz bizitzea ahal danik eta gehien.

## Mungia eraikiten

Irisgarritasun eta hiri-inguruneen hobekuntza-proiektuei ekingo jake.

# Kanpoko igerileku barrien lanak aurrera doaz



Baietz ein!

EUSKARALDIA



60

Abril 2018ko apirila

# Kaixo mungiarra!!

Informazinoa herritarren eskura erarik zuzenean iminteko hartu genduan konpromisoari eutsita, barriro gatortzuz. Izan bere, uste dogu gure beharraren ardatzetako bat egiten dogunaren barri emotea dala .

Azken baten, Mungia mungiarrontzat eta mungiarrokaz egitea dalako gure eguneroko ahaleginen oinarria.

Horren adibide asko ikusi geinkez ondoko orrialdeetan. Oso pozik gagoz azken aldian antolatu doguzan prozesu partehartzaileetan jasotako erantzunagaz, bai kanpoko igerilekuen ganekoan, bai  Goietako jolaslekuaren proiektuan, edota guztiz barria izan dan aurrekontu partehartzaileen prozesuan. Eskerrik asko parte hartu dozuen guztioi, eta besteok  animatu zaiteze, mesedez, hurrengoetan!!

Jarraitzen dogu, zelan ez, gure herriko kale eta errepideak hobetuten eta erosoagoak bihurtuten, eta horren lekuko izango dira Ibaibide kalean eta Mungiberrin egingo diran obrak.

Kontsumitzen dogun energia gero eta gitxiago izatea da gure beste arduretariko bat, batez bere, etorkizunean pentsatu behar dogulako. Horregaitik gabilz ekinean gure argiteria barriztatzen.

Gure alkarteek egiten daben beharra ez dogu inoiz nahiko goraipatuko, ale honetan agertzen da aipamen bat, baina ez dana. Herriaren alde musutruk egiten dan behar horri Udalak, daukazan baliabideekaz, lagunduten jarraitutea da gure asmoa.

Alkarteak gure nortasunaren adierazgarri dira eta, jakina, gure euskerea bere bai. Aurten aberri mailan EUSKARALDIA proiektua dago martxan. Labur esanda, mungiarrok 11 egunean (gitxienez) euskeraz biziten ahaleginduko gara. Hori bai, ez ahaztu gero, egunero lehenengo berbea euskeraz egitea dala gure hizkuntzaren erabilera bultzatuteko egin geinken gauzarik onena.



Ager Izagirre, Mungiako alkatea

Mungia, guztion artean egin ezkero, uste dogun baino aurrerago eroan ahal izango dogu.

Besarkada bat.

*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*

## Kaixo mungiarra!!

Nuestros esfuerzos diarios se dirigen a construir un Mungia para y con las y los mungiarras. Por ello, nos complace gratamente la respuesta obtenida en los procesos participativos de las nuevas piscinas exteriores, la nueva zona de juegos infantil cubierta de Goieta, así como de los presupuestos participativos. Queremos dar las gracias a quienes habéis participado y animar al resto para la próxima vez.

Continuamos mejorando las carreteras y apostando por la sostenibilidad energética. Asimismo, seguimos ayudando a las asociaciones ya que desempeñan una labor inestimable. Igualmente, fomentamos el uso de nuestra lengua con el proyecto EUSKARALDIA.

Besarkada bat.

*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*

# Aurrekontu Partehartzaileak

Baietz ein!

Partaidetzan oinarritutako aurrekontuen bidez **herritarrok Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan inbertituko dan aukeratzen dogu.** Hori Mungiaren eguneroko gestinoetan esku hartzeko modu bat da eta horren bitartez lortu gura doguna zera da: herritarrak inplikatzea eta gure herriak behar dituan inbertsinoen zati bat zehazten laguntzea.

Izan bere, **martiaren 5etik 18ra** Mungian erroldatutako bizilagunok aurrekontu partehartzaileetara **bideratutako 300.000€-ak** ze proiektutan inbertitzea gurago dogun zehazteko aukerea izan dogu.

**8 inbertsio-proiektu planteatu dira** eta, herritar askoren eretxia batu dogu iniziatiba honetan, bakotxak dituan interes eta lehentasunen arabera puntuatuta, barzuek zuzenean eta beste batzuek internet bidez.

**ALDERDI POLITIKO GUZTIEN ADOSTASUNAGAZ EGINDAKO AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK DIRA.**

**Mungiako Udala osatzen dogun alderdi politiko guztion** eretxian, herritarrek ez dabe agente pasibo izan behar. Horrenbestez, herritarren partaidetza eta gogoeta aktiboa sustatu gura doguz. **Mungia danok egiten dogulako.**

Orain, aurrekontuen **inkestak arreta handiz aztertzeko momentua** heldu jaku, mungiarren lehentasunak zeintzuk diren jakiteko. Emaitzak esku artean ditugunean, horren barri emongo dogu eta Udalak proiektuak zelan gauzatuko dituan azalduko dau.



Alderdi politiko guztien adostasunagaz egindako aurrekontu partehartzaileak dira.

| PROIEKTUA | AURREKONTUA |
|---|---|
| Basabideak berregokitzea | 60.000 € |
| Euskeraren erabilera sustatzea (enpresa- eta ostalaritza- arloetan) | 16.000 € |
| Kiroldegian 3 areto barri | 200.000 € |
| Esperientziaren eskola | 15.000 € |
| Jagon daigun gure osasuna | 30.000 € |
| Alkarteen azoka | 18.000 € |
| Oinezkoentzako Mungia | 40.000€ |
| Mungia Fest | 80.000 € |

## Presupuestos participativos

Los presupuestos participativos son unos procesos mediante los que **las vecinas y vecinos deciden de forma directa en qué se gasta una parte del presupuesto municipal.**

Así, desde **el 5 al 18 de marzo** las personas empadronadas en Mungia hemos tenido la oportunidad de elegir en qué invertir **la partida de 300.000€** destinada a estos presupuestos.

Se han **planteado 8 proyectos de inversión** y, tanto presencialmente como online, muchas y muchos hemos tomado parte **puntuándolos** en orden de importancia según nuestro criterio.

**ESTE PROCESO HA CONTADO CON EL CONSENSO DE TODOS LOS PARTIDOS POLÍTICOS.**

**Todos los partidos políticos que conformamos el Ayuntamiento de Mungia** creemos que la ciudadanía no tiene que ser un agente pasivo. Por ello, queremos impulsar la participación ciudadana y la reflexión activa. **Porque Mungia, somos todas y todos**.

Ahora estudiaremos los resultados de las encuestas para conocer las prioridades de la ciudadanía. Después estos **se harán públicos y desde el Ayuntamiento explicaremos cómo se ejecutarán.**

# Presupuestos Municipales 2018

## 2018rako udal aurrekontuak

**19.176.599€-ko diru kopuruaren bidez**, Udalean kalidadeko zerbitzu publikoak bermatu gura doguz. Udal aurrekontuok linea estrategiko desbardinetan bananduko dira, besteak beste:

Enplegua mantentzea eta sortzea **(844.414,40€),** gazteentzako alokairu-laguntzak eta MungiRockerako eszenatokia **(33.000€)**, gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuei eusketa **(1.835.520€)**, herritarren partaidetza **(300.000€)**, auzoak **(125.000€)**, gure nortasuna **(60.000€)**, kirol-jarduerak eta osasuna **(128.000€)** eta, amaitzeko, udaleko zerbitzu eta azpiegiturak hobetzea **(1.348.500€)**.

En este 2018 en el Consistorio **dispondremos de unas cuentas que ascienden a 19.176.599€**. La aprobación de estos presupuestos nos permitirá garantizar unos servicios públicos de calidad que se repartirán entre las siguientes líneas estratégicas:

- **CREACIÓN DE EMPLEO:** Seguiremos apostando por la inserción laboral, la creación de empleo e impulsaremos el Plan de Empleo Comarcal. Mungialdeko Behargintza contará con un presupuesto inicial de **844.414,40 €.**
- **JUVENTUD:** Facilitaremos **el acceso de la juventud a la vivienda en régimen de** alquiler. Buscaremos el consenso para la aprobación de la normativa que regulará el régimen de ayudas de 25.000€.

  Asimismo, MungiRock contará con **8.000€ para un nuevo escenario.**
- **BIENESTAR SOCIAL**: El Departamento de Acción Social e Igualdad tendrá un presupuesto de **1.161.520€** y la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales **674.000€.**
- **PARTICIPACIÓN CIUDADANA:** Para promover la participación ciudadana, los **presupuestos participativos** cuentan con **300.000€.**
- **BARRIOS:** Las vecinas y vecinos de nuestros **barrios** tendrán un apoyo de **125.000€** para mejoras.
- **IDENTIDAD:** Reforzaremos nuestra identidad con una **obra de teatro popular** que dispondrá de **60.000€.**
- **SALUD Y ACTIVIDAD DEPORTIVA:** Se han reservado **23.000€ para mejorar las instalaciones de paddel y 105.000€** para el sistema de renovación de aire del gimnasio y la sala de ciclo indoor.
- **SERVICIOS E INFRAESTRUCTURAS MUNICIPALES:** Son muchos los **trabajos de urbanización, reparación y mejora** que se ejecutarán en 2018:

  » Trabajos de asfaltado en la zona de Uriguen: 100.000€, 60.000€ más que el año anterior.

  » Nueva urbanización de la calle Ibaibide: 352.500€ (ampliación de aceras, reparación de la calzada sin que disminuya la cantidad de plazas de estacionamiento, mejora de las canalizaciones subterráneas).

  » Trabajos para la urbanización de Mungiberri: 200.000€. Se mejorarán las condiciones de accesibilidad de pasos peatonales y aceras.

  » Trabajos de urbanización en Zabalondo (zona industrial Arteche): 60.000€ para mejorar los sistemas de drenaje para la correcta evacuación del agua acumulada por la lluvia.

  » Plan de accesibilidad: 81.000€. Plan de actuación en diversas aceras y puntos del municipio y favorecer así la accesibilidad.

  » Saneamiento de Laraudo Bidea: 215.000€ para completar la red de saneamiento en esta zona.

## IBILGAILUEN GANEKO ZERGA

IBILGAILUEN GANEKO ZERGA ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA:

APIRILAREN 3TIK MAIATZAREN 3RA, BIAK BARNE

## IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS

PERIODO VOLUNTARIO DE PAGO DEL IMPUESTO DE VEHÍCULOS:

DEL 3 DE ABRIL AL 3 DE MAYO, AMBOS INCLUSIVE.

# Mungia, un pueblo amigable para sus personas mayores



Adinekoen ongizatea bermatzeko, Euskadi Lagunkoia sareari atxikitzeko hitzarmena sinatu eben Mungiako alkateak, Ager Izagirrek, eta Gizarte Politiketako Sailburuordeak, Lide Amilibiak. Bakarne Egia, Mungiako Udaleko Gizarte Ekintza eta Berdintasuneko zinegotzia eta Emilio Sola, Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria, bere bertan izan ziran.

**El municipio se une a la red Euskadi Lagunkoia**

El Ayuntamiento de Mungia se ha sumado a la red Euskadi Lagunkoia de municipios amigables con las personas mayores, una iniciativa impulsada por el Gobierno Vasco que favorece medidas que promueven un mayor bienestar para las personas mayores.

Con ello se pretende modificar el concepto de vejez relacionado con la dependencia o el déficit y sustituirlo por participación social, experiencia, potencial y solidaridad intergeneracional.

**La primera fase consiste en realizar una investigación participativa** mediante la cual se analizarán 8 aspectos:

- Espacios al aire libre y edificios
- Transporte
- Vivienda
- Participación y tejido social
- Participación ciudadana y empleo
- Respeto e inclusión social
- Comunicación e información
- Servicios sociales y de salud

Las personas mayores realizarán un diagnóstico en el que evaluarán, teniendo en cuenta estos puntos, hasta qué punto Mungia es un pueblo amigable para ellas y ellos, a fin de identificar en qué aspectos y de qué manera puede ser más acogedor e integrador.

La presentación tendrá lugar el 19 de abril a las 18:30 en Olalde Aretoa.

Tras la fase de investigación se redactará un informe con propuestas de acción.

# Clases de música para el grupo Gorabide Mungialde

Siendo conscientes de que el contacto con la música proporciona importantes beneficios, desde el pasado mes de enero, la Escuela de Música Municipal lleva a cabo dos nuevos grupos de contacto musical en los que toman parte personas con discapacidad intelectual de la asociación Gorabide Mungialde.

Gorabide Mungialde taldeko lagunak musika klaseak jasoten ari dira Udaleko Musika Eskolan joan dan urtarriletik.

# Bardintasun Plan Barria

Las sociedades están experimentando una gran transformación, sin embargo, **la realidad nos sigue mostrando la existencia de relaciones asimétricas de poder por género.**

Por ello, desde el Ayuntamiento **elaboraremos el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Mungia** y seguir así contribuyendo a la creación de una sociedad más igualitaria. Este año se evaluará el camino recorrido y se diagnosticarán las necesidades reales para lo que será importante la participación ciudadana. Con esa información, el próximo año se pasará a redactar el nuevo Plan.

### Aurton ebaluatuko da egindako ibilbidea

Gizarteak aldaketa-prozesu handi baten dago sartuta, neurri batean emakume guztiek egiten dabezan esfortzuei esker; izan bere, horrexek eskaintzen dau erea bardintasunaren aldeko bidean pausuak aurrera egiteko.

**UDALEAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BARDINTASUNA BULTZATZEN DOGU.**

Halan eta guztiz bere, genero desbardinen artean boterezko erlazino asimetrikoak erakusten jarraitzen dau errealidadeak. Hori hainbat eremu eta datutan egiaztatu leiteke: emakumeek lan merkatuan eta espazio politikoan daukien lekua, emakumeen kontrako indarkeria, euren denbora erabilteko eran eta abar luze bat.

> Aurten ebaluatuko da egindako ibilbidea eta beharrizanen diagnostikoa egingo da.

Horregaitik, Mungiako Udalean beharrezkotzat joten dogu **IV. Bardintasun-Plana lantzea eta gizarte bardinzaleago baten sorreran laguntzen** jarraitzea. Aurten, orain arte egindako ibilbidearen ebaluazinoa egingo da, baita beharrizan errealen diagnostikoa bere. Horretarako garrantzitsua izango da herritar guztien parte-hartzea. Behin informazino hori jasota, datorren urtean Plan barriaren erredakzinoari ekingo jako.

# Conociendo de cerca a las mujeres de Mungia

### Beca de Investigación

La presencia de las mujeres en la historia de la humanidad está tan escondida que se convierte en una falsificación de la realidad. Con el objetivo de cambiar esta situación y de hacer visibles a las mujeres, desde el Ayuntamiento hemos procedido a la provisión de una beca de investigación para indagar sobre mujeres que hayan aportado su pensamiento o su obra a nuestro municipio.

Ahora, la comisión de selección estudia las 5 interesantes propuestas presentadas a esta beca para seleccionar la más adecuada. Así, en los próximos meses se dará paso a lo que será la investigación.

En breve conoceremos a las mungiarras que han hecho historia en nuestro pueblo.



Euren lana edo pentsaerak Mungiari emon deutsiezan emakumeak nabarmentzeko helburuagaz, Udalak beka bat eratu dau emakumeen historiaren ikerlana burutzeko.

Aukeraketa batzordeak 5 proposamen interesgarri jaso dauz eta horreetatik bat aukeratuko dabe ikerketa abiatzeko. Laster ezagutuko doguz gure herriaren historian azterna itxi daben andrazko batzuen bizitzak.

# Emakumeen Nazioarteko Eguna

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa izango litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, kasurako, personak jagon, edo etxeko lanak egin. Lan horreetako gehienek ez daukie ordainsariririk, eta batez bere emakumeek egiten dabez.

Barriro bere, martiaren 8an antolatuko diran jarduera desbardinen bidez, gogoan hartu ditugu emakume horreek guztiak.

El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin las labores del cuidado de personas o el mantenimiento del hogar que realizan mayoritariamente las mujeres de manera no remunerada. El 8 de marzo hemos recordado a todas estas mujeres, a través de diversas actividades.



"Mungia martxan bardintasunaren alde" herri-lasterketa, andra eta gizonen arteko benetako bardintasuna lortzeko helburuagaz.

## Irudien erabilera inklusibo eta bardintasunezkorako tailerra

Gure Udaleko politikariek bardintasunaren eremuko prestakuntza-ikastaro baten hartu dabe parte; hain zuzen bere, udalean sortzen diran dokumentu, argitalpen, eta komunikazinoetan irudi bardinzale eta inklusiboak erabilteko lana erraztuko deutsieen erreminten ezagutzan sakontzeko.

Lehenago, bai politikariek eta bai administrazinoko langileek bere, hizkuntzaren erabilerari buruzko formazino-saio baten hartu eben parte.

El personal político de nuestro ayuntamiento ha participado en una formación para profundizar en el conocimiento de las herramientas que les facilitarán la labor de la utilización de imágenes inclusivas e igualitarias en los documentos, comunicaciones y publicaciones que se elaboren desde el Ayuntamiento.

## Curso para el profesorado por una educación igualitaria

Bardintasun zerbitzuak ikastetxeetako haur-hezkuntzako irakasleei zuzendutako ikastaroa eskaini dau, hain zuzen bere, bardintasunezko heziketari buruzkoa. Helburua heziketa sexista antzematen eta bereizten ikasteko jarraibideak lortzea da.

Desde el servicio de Igualdad se ha ofrecido un curso sobre coeducación dirigido al profesorado de los centros en etapa infantil. El objetivo es que se dispongan de pautas para discernir los valores, actitudes, comportamientos, juegos, y en definitiva, la educación sexista. Es importante romper moldes en los primeros años de vida para conseguir una sociedad igualitaria.

# 15 años alegrando desde el escenario

El Taller de Teatro de la Asociación de Mujeres Diz-Diz creó y representó la obra de teatro solidaria *Animalia y Tú* dirigida al público infantil en conmemoración del 15 aniversario de su creación y en colaboración con el Ayuntamiento.

La obra contó con mucho público y la recaudación de las entradas, que ascendió a 2.100 euros, se destinó a ayudar a asociaciones del municipio que se dedican a luchar contra enfermedades raras que padecen diferentes mungiarras.



Las mujeres de la asociación Diz-Diz se esfuerzan constantemente por alegrar y ayudar a vecinas y vecinos de Mungia.

Diz-Diz emakumeen alkartearen teatro tailerrak *Animalia y Tú* obra antzeztu eban euren ibilbidearen 15 urteak ospatzeko. Ikuskizunaren sarreren salmentatik ateratako 2.100 euroak mungiar desbardinek daukiezan gaixotasunei aurre egiten laguntzen daben erakundeei emon eutsiezan.

## Ekimen solidarioa

Ondoz ondoko hamalaugarren urtean, Errosko Solidarioaren Jaia ospatu zan joan dan urtarrilean. Ekimen honek beharrizaneko egoeran dagozan pertsona edo kolektiboei era eskuzabalean laguntzen deutsien proiektuak babesteko helburua dauka.

Aurten lortutako 1.108 euroak Mungiako Elikagaien Bankura zuzendu dira, eta Udalak beste horrenbeste jarri dau.

La iniciativa *Errosko Solidarioaren Jaia* recaudó el pasado enero 1.108 euros que han sido destinados al Banco de Alimentos de Mungia, a los cuales el Ayuntamiento aporta otro tanto.



Goazen! telebistako saio ospetsuko kideak bere bertan egon ziran erroskoa banatzen.

## Celebrando el año nuevo bereber

La Asociación MARWA de Mujeres Árabes de Mungia, organizó el pasado 13 de enero la fiesta Yennayer, celebración del año nuevo bereber. El objeto de esta celebración fue la de recuperar y compartir esta fiesta tradicional que se está perdiendo.

En la fiesta celebrada en Mugire Txokoa participaron otras asociaciones del municipio, así como representantes del ayuntamiento.



La celebración se llevó a cabo entre dulces tradicionales y buen ambiente.

# MungiRock Aretoak 3. urteurrena ospatu dau

**Kontzertuak eskaintzeko eszenatoki barria izango dau**

Urtarrilean 2018ko ekitaldien agendari hasiera emon jakon MungiRock Aretoaren, eta 3. urteurrena ospatu zan. Horretarako, inguruko musika-panoramako talde bikain bi ekarri zituan Azken Zarata Alkarteak: Revolta Permanent eta Lukiek.

Urteurrenera jende asko hurbildu zan eta ekitaldiak arrakasta handia izan eban.





Argazkiak: Azken Zarata Mungia Rock Elkartea

El pasado enero MungiRock celebró su tercer aniversario con los conciertos de Revolta Permanent y Lukiek. Con el fin de fomentar las iniciativas de ocio juvenil, desde el Ayuntamiento hemos destinado 8.000€ para que MungiRock cuente con un escenario nuevo

Lehenengo Revolta Permanent igo zan eszenatokira. Euren rap metalikoagaz eta oholtzaren ganean daukien presentzia handiagaz bertaratutako jendea ondo astindu eta animatu eben.

El pasado enero MungiRock celebró su tercer aniversario con los conciertos de Revolta Permanent y Lukiek. Con el fin de fomentar las iniciativas de ocio juvenil, desde el Ayuntamiento hemos destinado 8.000€ para que MungiRock cuente con un escenario nuevo.

Urteurrenera jende asko hurbildu zan eta ekitaldiak arrakasta handia izan eban.

Horren ostean, Lukiek taldeak hartu eban erreleboa eta euren rock alternatibo eta grunge kutsudunaz jantzitako soinu gordin eta sendoko errepertorioa eskaini eben.

**ARETOAN ESZENATOKI BARRIA EGITEKO 8.000€ BIDERATUKO DIRA.**

Udalak gazte-aisiagaz eta Mungiako gazteriagaz lotutako ekimenak bultzatzen jarraituko dogu. Horretarako, 8.000€-ko aurrekontua bideratuko da MungiRock Aretoak eszenatoki barria izan daian.

# Gazteguneak bere zerbitzua zabaldu dau ordutegi berriagaz

**Langile espezializatuen errefortzua bere egongo da**

**ORDUTEGI BARRIA:**
**Martitzenetik eguenera:** 17:00-20:00
**Bariku eta zapatuak:** 17:30-21:00
**Domekak:** 17:30-20:00

Mungiako Gazteguneak orain dala hiru urte zabaldu zituan ateak. Espazio horrek gazteen artean izandako harrera ona dela eta, Udalak zerbitzua hori hedatzea erabagi dau, hain zuzen bere, ordutegi barria ezarrita. Helburua 12 urtetik gorako gazteentzako aisialdi aukerak hobetzea eta indartzea da.

Gazteen eskakizunei erantzuteko, astelehenetan zabaldu beharrean domeketan zabalduko da.

Horren ganera, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, langileen errefortzua egongo da. Hau da, sozio-hezkuntzako esparruan espezializatutako dinamizatzaileak egongo dira, gazteekin egoteko, baliabideak esakintzeko, euren iniziatibetan laguntzeko; azken baten, gazteen ardura eta beharrizanak hobeto ezagutzeko.

Gazteguneak gazteentzat daukan bulegoaren ordutegia bere zabaldu egingo da: martitzenetik eguenera 17:00etatik 20:00etara; eta barikuetan 11:00etatik 15:00etatara.

El Gaztegune ha ampliado su servicio con un nuevo horario de martes a jueves de 17:00 a 20:00, viernes y sábados de 17:30 a 21:00 y domingos de 17:30 a 20:00. También habrá un refuerzo de personal joven dinamizado y especializado en el ámbito socioeducativo con el propósito de mejorar la calidad del servicio.

# Euskeraren Aholku Batzordea barriztu egin da

Zezeilaren 9an batzartu zan lehenengoz Euskeraren Aholku Batzorde barriztua.

Aholku batzorde honen zeregina Udalaren euskara planak bideratzen laguntzea da eta, beharrezkoa danean, zuzenketa neurriak proposatzea. Horrexetarako sortu zan 2002an eta, harrezkero, hainbat aldaketa jasan ditu egituran.

2012an guztiz berregin ostean, urte oparoak izan dituan arren, batzordea barriztatzeko momentua zala erabagi zan iaz, batetik, aberasgarriagoa dalako kideak aldian•aldian aldatzea, eta bestetik, euskeraren erabilera normalizatzeko bide horretan aro barri baten aurrean gagozalako.

Batzorde txikia (teknikoa) izan da gehien aldatu dana, orain arteko batzordekideek eurek proposatutako irizpideei jarraituta. Aldaketak, batez bere, egiturari barik kideei eragin deutse; hau da, udal teknikari batzuen ordez 2017ko udagoienean egindako Euskera Foroetan parte hartu eben herritar eta alkarteen ordezkariak sartu dira.

Hauxe da oraingo egitura (urtarrileko Osoko Bilkuran aho batez onartua):

- Udaleko Euskerako zinegotzia1 euskera teknikariak 2
- Udal Euskaltegia eta AEK 2
- Mungian Euskeraz alkartea 1
- Taket Bertsolaritza alkartea 1
- Merkataritza eta enpresa2
- Kultur alkarte 1
- Kirol  alkarteak 2
- Euskalgintzako herritar 2

El Consejo Asesor del Euskera, encargado de ayudar a canalizar los planes de euskera del Ayuntamiento y proponer las medidas de corrección, se ha renovado. El mayor cambio se ha debido a la sustitución de personal técnico municipal por vecinas y vecinos y representantes de asociaciones que tomaron parte en los Euskera Foroak de otoño.

# EUSKARALDIA
# 11 Egun Euskeraz

El pasado 20  de marzo fueron muchas y muchos los mungiarras que se acercaron a la presentación del Euskaraldia. El objetivo es que las y los mungiarras hablen y vivan en euskera durante 11 días, desde el 23 de noviembre hasta el 3 de diciembre. Para más información consultar la web: https://euskaraldia.eus/

Martiaren 20an, Torrebillela aretoan herritar asko batu zan Mungiako Euskaraldiaren aurkezpen-batzarrean parte hartzeko.

### ZER DA EUSKARALDIA?

Lehenengoz, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako erakundeek eta herri-alkarte eta herri-ekimenek (euskera-alkarteen koordinakundeak batez bere) bat egin dabe proiektu baten.  Eta Torrebillelan egindako aurkezpenean hori zelan egingo dogun azaldu zan:

**ASMOA**: Mungiako herritarrak 11 egunean (zemendiaren 23tik abenduaren 3ra) euskeraz bizitzea ahal danik eta gehien.

**ZELAN?** Ahalik eta herritar gehienen konpromiso aktiboa lortuta, era bitakoa: "ahobiziak", lehenengo berba beti euskeraz egingo dabenak; eta "belarriprestak",  erderaz erantzun (zein ez)arren,  eurei euskeraz egiteko eskatuko dabenak.

**NORK BIDERATUKO DAU?** Herritarrek, alkarteek eta erakundeek, guztien arteko alkarlanaren bidez.

Hamaika egun baino izango ez badira bere (gero gerokoak), hori prestatzeko hainbat lan egin beharko da. Hori dala-eta, batzarrean ekimenaren ganeko azalpenak emon ostean, antolatze-lanak egingo dituan Talde Eragilea osatzeko lehenengo pausuak egin ziran. Herritar eta talde ugarik emon eben izena eta hurrengo batzarra apirilean egingo dala  erabagi zan.

Herritarren parte hartzean oinarritzen dan proiektu hau hasiera-hasieratik dago zabalik. Beraz, parte hartzeko gogoa badaukazu, emon izena: mungianeuskeraz@gmail.com

Laster izango dozu egitasmoaren ganeko barri gehiago, bien bitartean hemen daukazu oinarrizko informazinoa: https://euskaraldia.eus/

# Euskerarako Plan Estrategiko Barria (ESEP 2018-2022)

Urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran onartu zan aho batez datozen urteetarako Euskerarako Plan Estrategikoa.

**EUSKERA "JAKITETIK" EUSKERA "ERABILTERA" PASATU BEHAR DOGU.**

Plan hori une berezian dator. Udalak eta Euskal Herri osoak urte asko daroez bete-betean euskeraren erabilera indartzeko lanean. Urteotan oinarri sendoak ezarri dira baina inertzia negatiboak oraindik bere hor dagoz.  Horrek guzti horrek erakusten dau salto kualitatibo bat egiteko momentua dala: euskera "jakitetik" euskera "erabiltera" pasatu behar dogu.

> Herritarren eta alkarteen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa da euskeraren erabilera indartzeko.

Hori dala-eta, indarrik gehien erabilera-arloan egin behar dala jakinda, eta 2017ko Euskera Foroetan esandakoari jarraituta, honeexek izango dira datozen urteetarako erronka nagusiak:

- Aisialdirako eskaintza era integralean euskalduntzea (Udalarenaz ganera, alkarteena, ostalaritzarena, zerbitzu pribatuena...)
- Euskera prestigiatzea; dendetan, enpresetan eta kalean komunikazinorako ohiko hizkuntza bihurtuta.
- Hizkuntza-kontzientzia handitzea (euskaldunak behintzat euskeraz).

Horretarako ondoko estrategiak erabilita:

- Euskaldunen arteko hartu-emon sareak sortu, arlo batzuetan batez bere.
- Euskeraz dagoana eta eskaintzen dana ondo komunikatu.
- Hizkuntza-kontzientzia landu.
- Ohitura linguistiko barriak sortu eta sendotu.
- Planean jarritako helburu eta estrategia horreek erakusten deuskuenez, kalea eta jendartea izango da datozen urteetarako joko-zelaia. Horretan, beraz, herritarren eta herri-alkarte eta ekimenen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa izango da.

Plana ikusi gura badozu: www.mungia.eus

En la sesión plenaria del pasado enero se aprobó el Nuevo Plan de Acción para la Promoción del Euskera (2018-2022). Sabiendo que la mayor fuerza se debe hacer en el área del uso, tanto la calle como la gente serán el campo de juego. Asimismo, para conseguir los objetivos marcados será imprescindible la participación y ayuda de las vecinas y vecinos, así como de las asociaciones.

# Konponketa lanak Zabalondo auzoan



Arteche enpresaren alboan dagoan etxe-taldea.

## Euria ari danean arazoak saihesteko

Udalak auzoetatik paraje egon gura dau, bertako biztanleek daukiezan arazoak entzun eta ezagutu. Auzoetan bizi diran mungiarren erosotasuna eta bizi-kalidadea handitzeko, hobekuntza-lanak egiten jarraitzen dogu.

Oraingoan Zabalondon, Arteche alboan dagoen etxe-taldean hobetu egingo da drainatze-sarea, urak eta hezetasunak sortzen dituan arazoak konpontzeko. Horren ganera, urbanizazino-lanak bere egingo dira, hau da, espaloietako baldosa barriak jarri eta zebrabideak konpondu.

Lanok apirilean hastea aurreikusten da; aurrekontu osoa 60.000€koa da.

## Obras en el barrio Zabalondo

**Evitarán los problemas cuando llueva**

Desde el Ayuntamiento queremos estar cerca de nuestros barrios y escuchar y conocer los problemas de las vecinas y vecinos que los habitan.

Se prevé que los trabajos comiencen durante el mes de abril y se ha destinado un presupuesto de 60.000€.

En el grupo de viviendas ubicadas en las inmediaciones de la empresa Arteche, se realizarán trabajos para mejorar la red de drenaje que servirá, entre otras cosas, para paliar o reducir las humedades que afectan a estos inmuebles.

# B kolektorearen instalazinoa Laraudo Bidean

## Saneamendu-sarerako loturea

Gure inguruetako saneamendua hobetzen jarraitzen dogu. Oraingo honetan, Laraudoko bizilagunen bizi-kalidadea hobetzeko helburuagaz, saneamendu-sare osoa bukatuta egoteko falta dan B kolektorearen instalazinoa egingo da.

215.000€-ko aurrekontua dauka eta lanak udan hastea aurreikusten da.

Kolektore honek Laraudoko auzo osoa saneamendu-sarera konektatuta egotea ekarriko dau, inguru horretako hondakin-ur guztiak bideratzea.

215.000€ko aurrekontua dauka eta lanak udan hastea aurreikusten da.



## Instalación de colector B en Laraudo Bidea

**Conexión a la red de saneamiento**

Continuamos mejorando el saneamiento en nuestro entorno. Esta vez, y con el objetivo de mejorar la calidad de vida de quienes viven en el barrio Laraudo, la red de saneamiento se verá completada con la instalación del colector que faltaba, el colector B.

Con un presupuesto de 215.000€, está previsto que las obras comiencen en verano.

Su instalación supondrá la conexión total de las vecinas y vecinos de Laraudo a la red de saneamiento. Con ello se llevará a cabo la derivación total de las aguas residuales en esta zona.

## Nuevos trabajos de mejora en nuestros barrios

Diversos barrios verán su zonas mejoradas con los arreglos de carreteras que se van a llevar a cabo en mayo. Esta vez, la reparación está prevista en varios puntos de Larrauri y Markaida, y que cuentan con un presupuesto de 100.000€.

# Udal Frontoiko argien aldaketa

Siguiendo con nuestro trabajo en el área de la sostenibilidad, llevaremos a cabo la mejora de las instalaciones del alumbrado público del Frontón Municipal con la sustitución de las actuales luminarias por otras de tecnología LED en la zona de juego, así como en la iluminación de la grada.



Ordezkapen honi esker iraunkortasuna bermatzea eta dirua aurreztea lortuko da.

Udalean lan handia egiten dogu eraginkortasun energetikoa eta iraunkortasuna bultzatzeko. Hori dala eta, Mungiako Udal Frontoiko argien instalazinoaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak egingo dira.

